

FAMILIAKAZ IKASTEN

ASTE HONETAN 3 URTEKO IKASLEEN
GELETAN "ARAKATZEN, ARAKATZEN,
NIRE GORPUTZA EZAGUTZEN"
LANTZEN GAGOZAN PROIEKTUAN,
ESPERIENTZIA BEREZIA BIZI IZAN
DOGU. BAI, HORIXE!

GEHIAGO

LH: ATEAK
ZABALTZEKO ●
EGUNAK

BATXILERGOKO
ARKITEKTURA
OLINPIADAK

HH4:
ANIMALIAK
EZAGUTZEN

Zentzumenen bidez, mundua ezagutu

Gai nagusia "Zentzumenak" izanik, familien parte-hartze aktiboa zein zuzena dauan hezkuntza proposamen hau, jorratu eta aurrera eroan dogu. Honetarako, beren-beregi prestatutako jarduera berezia egin dogu, hau da, zentzumen-eskularru sentsoriala sortzea. Ikasleek, askotariko testurak dabezan materialak erabiliz, besteak beste, kotoia, esponjak edota elementu zimurtsuak, esperimentazioaren bidez, sormen handiko lanak egitea lortu dabe.

[INFO GEHIAGO](#) | [MÁS INFO](#)

'Aurrera zein atzera, denboran bidaiatzera'



Hainbat aitita-amama etorri jakuzan txikitako bizipen, ohitura zein istoriak kontatzen. Honeen testigantza zein hitzak entzunda, denborak aurrera egin ahala gizarteak nozitu dauzan aldaketekz ohartu gara.

[INFO GEHIAGO](#) | [MÁS INFO](#)

Daborduko izan doguz Ikastolako Ateak Zabaltzeko Egunak LHn. Gurasoak geletara sartu dira eta ikasleak batera, hainbat irakasgaitako jardueratan parte hartu dabe.

Ateak Zabaltzeko Egunak



[INFO GEHIAGO](#) | [MÁS INFO](#)



HHn animaliak bertatik bertara!

4 urteko ikasleak, 'Parkeko lagun ikusezinak' proiektuagaz murgilduta dagoz. Zomorroen gaineko hainbat ikerketa egiten dabilzala eta, Bitxos Marurira joan dira.

[INFO GEHIAGO](#) | [MÁS INFO](#)



Kirol Astea, kirola baino askoz gehiago

Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako ikasleak, hainbat kirol lantzen ibili jakuz. Helburua, ikasleak kirol alternatibo zein eurei ezazagun egiten jakezanen barri jasotea eta honetan jardutea izan da.

[INFO GEHIAGO](#) | [MÁS INFO](#)



Aurrerapausua Arkitekturako Olinpiadetan

Aurten Batxilergoko 2. mailako talde bik Arkitekturako Olinpiadetan parte hartu dabe. Honeetako bat Euskadiko 2. faserako sailkatu da. Zorionak, Agueda, Noelia eta Laura!

[INFO GEHIAGO](#) | [MÁS INFO](#)